

## EIBAR´KO EUSKERIAREN ALDE

Aiskide baten etxian naiz. Bat batian, zeregin bat daukala-ta, zeregin ori eitera lagunduko netzan esan zeztan. Bai pozik pe, erantzuten detzat, nik ein neikian zerbait bada. Ez dezu ezer egin biarrik, neri lagundu bakarrik.

Auto batian sartu giñan, eta an goiaz Caracas´ko kaliak ziar <<Los Rosales>> deitzen jakon auzo dotore batera. Auzo au dana dago txaletez beteta, geienak euskal tankerakuak dira. Danak politak, inguruak lorategiz betetea. Giro ona dago emen. Etxeok, euskaldunak ein zituen, eta euskaldunez beterrik darez. Orain ez ainbestian, lenago askoz be euskaldun geiago bizi ziran.

Uste barik, autua, orietariko etxe baten aurrian gelditzen da. Ementxe bizi da –esatezta adiskidiak-, Toribio Etxeberria jauna, eibartar jator bat da. Bera ikustera nator, nerekin sartu nai badozu. Bai pozik pe, erantzun detzat. Ni beti nago prest esukaldunekin euskeraz jardutzeko. Eta, an sartu giñan. Toribio Etxeberria jaunaren etxian.

Nork ez dau gizon au ezautzen? Eibar´ko gizon jakintsu ta zintzoa da. Jaungoikuak daki zenbat biar ein eban an errian. Bera izan zan gaiñera ALFA sortzen biarrik geien ein ebana, berak organizatu eban koperatiba bezela. Ondo ezaguna da bai, Eibar´en, jaun biargin eta argi au, eta bere izena oindiok pe itzal aundiz erabiltzen dabe Eibar´ko seme askok.

Eta zorionez etxian billau genduan Etxeberria jauna. Arrera ezin ohea ein zezkuan. Gure artu-emonak euskeraz ein genduzen. Alako batian, besotik eldu ta bere biar lekura eruan giñuazen. Aintxe zeukan liburutegia be, txukun ta apain liburuak illaran ederki ipiñi-ta. Orrez gaiñera fitxero eder bat zeukan, au be argi ta garbi.

-Ba al dakizue fitxero orren barruan zer daukadan? Galdetu zezkun gizon argiak.

-Ez, baña jakin nai genduke, preguntatzen dezun ezkerok.

-Ara ba. Iztegi edo <<dizionario>> bat egiten diardut, eta ixa amar milla fitxa daukadaz biar diran moduan ordenauta.

-Baña, zer edo nolako iztegia egiten diarduzu?

-Euskerazkua.

-Euskerazkua? Erantzutzen detzagu arrituta.

-Bai jaunak! Eibar´ko euskeraren iztegia.

-Nola ein zeike biar ori, emen Caracas´en? Badira eibartarrak baña ez alako dizionario aundi bat egiteko beste...

-Bakar bakarrik diardut biar au eiten, iñoren ta ezeren laguntasunik barik. Eta nere biar au jatorraua urte deian, eztaukat eskuartian euskal-iztegi bat be.

-Ezta makala!

-Ara nola eiten doten. Nere amak erakutsi zeztan berbetia, eta nere erritarren artian erabiltzen neban berbeta ederra, nere barruan oindiok be bizkor dabillena, berriz gogoratzen dot, eta burura “datorkidan berbak banaka, txarteltxoetan ipintzen ditut, idatzi-ta.

-Orduan, zeure kanteratik euska-arriak atarutzen diarduzu.

Alaxe da izan be! Baña eztot berbia bakarrik txarteletan ipintzen: aurretik itza ta bere ondoren, berbiakin erabiltzen diran esaera guztiak.

Okerrian ez-banago, egin zeiken euskal-lan ederrenetakoa eiten diarduzu, Etxeberria jauna. Luzero eztala irakorri neban Bouda linguista eta euskalari aundiaren idaz-lan batian, eta antxen esaten eban biar biarezkua zala euskal-dialektoak sakon ikastia, oindiok ezta ein biardan moduan lan ori. Zu, ain zuzen be, biar orretan zabiz D. Toribio.

-Bai, oiñ koine (erri-izakerak) batez be linguista jakintsuen artian, garrantzi aundiena dau eta ortik, bai orixe, Bouda jakintsuaren eskabidia be.

Txartel batzuek erakusten dezkuz eta txokauta gelditu giñan, aiskidia ta ni alako gauza ederra ikustiaz. Amar milla fitxa... Ezta auntzan gaberdiko estula. Eta oindiok ezta bere lana amaitu D. Toribio´k, ala be laster amaitzea espero dau.

Orra Etxeberria jauna, zartzaruan, eukerarekin maitetuta. Berak esan zezkuanez, ointxe asi ei da sakon ezautzen euskeraren edertasuna.

<<Ez detza euskerak beste edozein idiomari zorrik. Aren besteko ederra ta egokia da>>, esan zezkuan gaiñera.

Laburregia izan zan gure egotaldia D. Toribio´k bere fitxeroan ditxuan aberastasunak ikusteko. Berak euskeraz eskribidutako poesiak eta beste lantxo batzuek erakutsi zezkuzen, baña ezin izan genduan biar añako patxaran irakorri.

Agur bero bat egin zetzagun alkarri, eta egia esan, berriz be Etxeberria jaunaren etxerako gogoz gelditu nintzan, aren euskal ondasunak bein ta berriz ikusi ta ikasteko.

Or, eibartar maiteak, zertan diarduan zuen erriko seme onek bere zartzaroan euskerakin txoraturik. Izan be Euskalerritik aldetuta gabizenentzako gure euskeraren indarra aundia da, eta goizago edo berandu, benetako euskal semeak, bere altzo berora ekartzen ditu.

Jarraibide ederra, eibartarrak! Zuek be gogoz ekingo al detzazue euskerari indarra emoten.

ANDIMA IBIÑAGABEITIA